



# m onografikoa

## liburutegiak



UDAL-LIBURUTEGIEN  
AZTERKETA EUSKAL  
AUTONOMIA ERKIDEGOAN  
(LABURPENA)

# AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA.....	1
FITXA SINOPTIKOA.....	2
I. HELBURUAK.....	4
II EGITURA ETA METODOLOGIA.....	5
III. EDUKI NAGUSIAK.....	7
1. Emaizen analisia: Alderdi kuantitatiboa.....	7
1.1. Bilduma.....	7
1.2. Erabiltzaileak eta mailegu zerbitzuak.....	8
1.3. Liburutegietako ekipamendua: Automatizazioa.....	8
1.4. Gastuak eta finantzaketa.....	9
1.5. Pertsonala.....	10
2. Emaizen analisia, alderdi kualitatiboa: Liburutegietara bisitak.....	10
2.1. Emaizta nagusiak.....	10

## AURKEZPENA

Jarraian aurkezten den dokumentuak Ikertalde Grupo Consultor enpresak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saialaren eskaerari erantzunez burututako *Udal-liburutegien azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan laburpen sintetiko bat jasotzen du.*

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzuak 1999. urtean informatikako programa baten bidez estatistika informazioaren bilketa hasi zuen. Honela, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean (ELSN) dauden liburutegietako daturik esanguratsuenak lortu dira. 2001. urtean, lehenengo aldiz urtekari moduan argitaratu ziren. Edizio hau 2004ko datuei dagokie.

Dokumentu osoa Lakuako Kulturaren Euskal Behatokiko bulegoetan kontsulta daiteke eta ondoko helbidean eska daiteke: [kulturabehatokia@ej-gv.es](mailto:kulturabehatokia@ej-gv.es)

## FITXA SINOPTIKOA (I)

DESKRIBAPENA	
<b>Azterlanaren izenburua</b>	Udal-liburutegien azterketa Euskal Autonomia Erkidegoan
<b>Burutu duen erakundea</b>	Ikertalde Grupo Consultor S.A.
<b>Orrialde kopurua</b>	Emaizten txostena: 19 Txosten estatistikoa: 139. Erabilitako galdesortak biltzen dituen eranskina sartzen du
<b>Burutu zen urtea</b>	2005
<b>Inplikaturako sektorea(k)</b>	Liburutegiak
<b>Aurrekariak</b>	Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatutako liburutegien estatistikak
<b>Helburuak</b>	Helburu bikoitza du: Liburutegi Zerbitzuak ELSNko liburutegien plangintza egokia ezartzen lagunduko dioten datu egituratuak izan behar ditu, baita liburuzainek beren datuak, beste liburutegietako datuekin batera, eskura edukitzea, liburutegietako funtzionamendu egokia errazteko eta bideratzeko asmoz
METODOLOGIA	
<b>Ikerketa-metodologia</b>	<b>Kuantitatiboa:</b> Liburutegietako Nazioarteko Estatistikaren araudira lotutako inkesta (ISO 2789), interesgarriak kontsideratzen diren beste hainbat gaiekin osatua <b>Kualitatiboa:</b> Tokian tokiko bisitak, aztertutako aldagai ezberdinak egiaztatzeko eta izaera kualitatiboa duen informazioa jasotzeko
<b>Parte-hartzea</b>	Guztira 259 liburutegik parte hartu dute. 107 bisita egin dira
<b>Informazioaren ezaugarriak</b>	<b>Adierazleak:</b> 34 <b>Informazioa sailkatzeko kategoriak:</b> Bilduma eta funtsak, Erabiltzaileak, Instalakuntzak eta sarbideak, Automatizazioa eta Internet, Gastuak eta finantzaketa eta Pertsonala. Lurralde, eskualde eta biztanleria mailaren arabera sailkatuta daude

## FICHA SINÓPTICA (II)

EDUKI NAGUSIAK	
<b>Egitura</b>	Azterketa, datu kuantitatiboen nahiz kualitatiboen azterketa duten emaitzen txostenaz eta estatistika txostenaz osatzen da.
	<b>Datu-motak:</b> Zentsukoak
	<b>Iturriak:</b> Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak utzitako inkesta baten bidez liburutegiek emandako datuak
	<b>Datuak eguneratzeko maiztasuna:</b> Urtekaria
<b>Ikuspegia</b>	<b>Informazioaren analisisa:</b> Inkestetatik eta liburutegietara egindako bisitetatik lortutako datuen analisisa. Emaitzen txostenean bilduak.
	<b>Diagnostikoa:</b> Tokian tokiko bisitak eginda lortutako informazioa hartzen du oinarritzat. Ondorengo gaien arabera antolatu dago: azalera, pertsonal falta, pertsonalaren gaitasunaren garapena, liburutegien arteko harremanak, erabiltzailearen motibazio falta, Udala, Eusko Jaurlaritza
	<b>Jarduera-ildoak:</b> Proposamenak diagnostikoa egituratua dagoen eremuetan eragiten du. Langile kopurua handitzean nahiz beraien prestakuntzan eta harremanen hobekuntzan laburbiltzen da. Udalei egiten zaizkien eskaerak hauexek dira: zerbitzua-ren promozioa, lanaren onarpena eta inbertsio handiagoa gauzatzea. Eusko Jaurlaritzari egiten zaizkion eskaerak, harremanaren hobekuntzan, subentzioen politikan eta, orokorrean, euskarri sendoan eragiten dute
	<b>Ondorioak:</b> txostenean ez dago atal zehatzik
<b>Baliabide bibliografikoak/ webgrafikoak</b>	Ez
EMAITZEN JAKINARAZPENA	
<b>Emaitzak jakinarazteko eta argitarazteko sistema/prozesua</b>	Dokumentu osoa Lakuako Kulturaren Euskal Behatokiko bulegoetan kontsulta daiteke eta ondoko helbidean eska daiteke kulturabehatokia@ej-gv.es

## I. HELBURUAK

Helburu bikoitza du:

- Alde batetik, Liburutegi Zerbitzuak ELSNko liburutegien plangintza egokia ezartzen lagunduko dioten datu egituratuak izan behar ditu.
- Bestalde, liburuzainek beren datuak, beste liburutegietako datuekin batera, eskura edukitzea, liburutegietako funtzionamendu egokia errazteko eta bideratzeko asmoz.

Azterketa, datuen analisia duen **emaitzen txostenaz** nahiz **txosten estatistikoaz** osatuta dago.

**Azterketa, datuen analisia duen  
emaitzen txostenaz nahiz  
txosten estatistikoaz osatuta  
dago**

## II. EGITURA ETA METODOLOGIA

Estatistika honen osaketan erabilitako informazio iturriak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak emandako inkesta baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko udal-liburutegi publikoek emandako datuetan oinarritzen dira.

Inkesta hau Liburutegietako Nazioarteko Estatistikaren araudira lotzen da (ISO 2789), baina beste erakunde batzuek erabilitako eta interesgarriak kontsideratzen diren beste hainbat gaiekin osatu da.

Kultura Sailak eskaturiko informazioak, Ikertalde Grupo Consultoren lankidetzarekin batera, garbiketa eta us-tiapen lanetan honakoa sartzen du:

### A. Liburutegiaren identifikazio datuak

Liburutegiaren kokapenari buruzko informazioak –izena eta helbidea, udalerrria, telefonoa eta harremanetarako faxa, CIFa, etab.- datu basean identifikatzeko kodea, beronen arduradunaren datuak eta liburutegiak zerbitzatzen duen biztanle kopuruari (biztanleria helduen eta gazteen artean eta sexuaren arabera banaturik) buruzko informazioa hartzen du kontutan.

### B. Bilduma edo liburutegi funtsa

Lau atalez osatua dago. Lehenengoan hizkuntzaren, gaiaren eta bukaerako hartzailearen arabera liburutegian dauden funtsak tratatzen dira. Bigarren eta hirugarren atalek funtsen eskuratzearren eta euren sailkapenerako erabilitako planteamenduaren arabera (hizkuntza, gaia eta bukaerako hartzailea) bajaran eman diren funtsak hartzen dituzte kontutan.

Laugarren eta azken atalak, urtean zehar eginiko funtsen eskuraketak, eginiko funtsen bajak eta berauen euskarriaren araberrako xehetasunak (ikus-entzunezkoak, dokumentuak, dokumentu elektronikoak eta grafikoak, etab.) barne hartzen ditu liburutegiko funtsentzat.

### C. Liburutegiaren erabiltzaileak

Atal hau beste lau azpi-ataletan banatzen da. Lehenengoak zentroaren erabiltzaileei buruzko ezaugarri nagusien informazioa jasotzen du, bai urtean izena emandako erabiltzaileen informazioa eta baita mailegu bidezko erabiltzaileen informazioa ere. Honela, informazio hau biztanleria heldua eta gaztearen eta sexuaren arabera banatzen

**Inkesta hau Liburutegietako Nazioarteko Estatistikaren araudira lotzen da (ISO 2789), baina beste erakunde batzuek erabilitako eta interesgarriak kontsideratzen diren beste hainbat gaiekin osatu da**



da. Bigarren azpi-atalak maileguen informazioa jasotzen du hartzailer motaren, utzitako euskarriaren eta baita hizkuntzaren arabera ere. Hirugarren azpi-atalak liburutegien arteko maileguei buruzko informazioa jasotzen du: Euskal Autonomiaren barruan, Estatuan edota Estatutik kanpo eginiko maileguei buruzko informazioa. Informazio multzo hau liburutegian eginiko kultur aktibitateak ezagutzeko zifrekin bukatzen da.

#### **D. Instalakuntzak eta sarbideak**

Atal honek liburutegiei buruzko hainbat datu jasotzen ditu, ordutegia, azalera erabilgarria, apalen metro linealak, irakurketarako postuen kopurua eta ekipamendu informatikoaren kuantifikazioa duen erabilpenaren arabera: barne erabilpena edota erabilpen publikoa.

#### **E. Automatizazioa eta Internet**

Internetarako sarbideari buruzko informazioa, Interneteko konexioari buruzkoa, sarean liburutegiaren presentziari buruzkoa, Web-ean OPACik duen ala ez; eta baita zentroek garaturiko funtzio automatizatuei buruzko informazioa ere jasotzen da.

#### **F. Gastuak eta finantzaketa**

Liburutegiek egiten dituzten gastuen tipologiari buruzko xehetasunak hartzen ditu kontutan, eta baita bere finantzaketa iturriari buruzko informazioa ere.

#### **G. Pertsonala**

Liburutegietako langileen ezaugarri nagusiak jasotzen ditu kategoria profesionala, ordutegia, sexua, adina eta titulazioaren arabera. Azkenik, 2004. urtean liburutegietako garaturiko prestakuntza gaiei buruzko zifra labur batzuk eskaintzen ditu.

Eginiko datuen bilketaren izaera kuantitatiboarekin batera, liburutegien lagin adierazgarri bati in situ eginiko bisita bat jasotzen du, bertan azpiegitura, liburutegiko ekipamendu informatiko, eta abarrekin erlazionaturiko hainbat aldagai egiaztatzeko helburuarekin. 107 liburutegietara egin da bisita.

**Liburutegietako langileen ezaugarri nagusiak jasotzen ditu kategoria profesionala, ordutegia, sexua, adina eta titulazioaren arabera. Azkenik, 2004. urtean liburutegietako garaturiko prestakuntza gaiei buruzko zifra labur batzuk eskaintzen ditu**

## III. EDUKI NAGUSIAK

### 1. EMAITZEN ANALISIA: ALDERDI KUANTITATIBOA

EAEko udal-liburutegien %92,5ak erantzun dio inkestari; hau da, Kultura Sailak hasieran emandako 282tatik 259k bete dute inkesta.

Eginiko azterketan lortutako zifra nagusiek adierazten dutenez 3.589.709 liburutegi funts daude elkarrizketaturiko 259 liburutegietan. 2004. urteko bisitariak guztira 4.600.000 izan ziren, eta urteko erabiltzaile desberdinak 672.000ra heltzen dira. Liburutegi hauetan lan egiten duten langileak 580 pertsona dira, eta 400 inguru, liburuzainak edo liburutegietako laguntzaileak dira kategoria profesionalari dagokionez, gainerako langileak bekadun, bolondres, etab. bezalako kategorietan sartzen direlarik.

Azkenik esan beharra dago liburutegi hauetako finantzaketa 24.250.000 eurotara iristen dela; hau da, batez beste 93.000 euro liburutegi bakoitzeko, gastuak finantzaketa honen %95 direlarik.

#### 1.1. Bilduma

Udal-liburutegietako bilduma euskarri dokumental mota ezberdinez osatuta badago ere, liburuak eta txostenak dira gehiengoa, dauden funtsen %86,7arekin. Dagoen funts guztiaren %4,4a ikus-entzunezko dokumentuz osatua dago, eta berau proportzio berean banatzen da audio eta ikus-entzunezko dokumentuen artean.

Hirugarren lekuan mikroforma, material grafiko, etab. bezalako material bereziekin erlazionaturiko euskarriak daude (funtsen %1,1arekin) dokumentu elektronikoen (funtsen guztizkoaren %0,6arekin) eta seriaturiko argitalpenek jarraitzen dietelarik.

Liburutegi funtsen guztizkoaren laurden bat gutxienez euskarazko materialek osatzen dute, eta nagusiki publiko helduari zuzenduriko gaiez eta fikziozko gaiez osatuta dago.

Erosketa bibliografikoak 2004. urtean zehar 228.237 unitatekoak izan dira; hau da, 2004. urteko funtsen %6,4a. 2004. urtean erositako hiru unitatetik bat gutxienez euskarazko euskarrian dago.

Garapenari dagokionez, 2003. urteko informazioa oinarritzat hartuz, azken urte honetan %21,5eko igoera eman da funtsen kopuruan; eta euskarri motaren arabera, ikus-entzunezko dokumentuek izan dute hazkunde er-

**2004. urteko bisitariak guztira 4.600.000 izan ziren, eta urteko erabiltzaile desberdinak 672.000ra heltzen dira. Liburutegi hauetan lan egiten duten langileak 580 pertsona dira, eta 400 inguru, liburuzainak edo liburutegietako laguntzaileak dira kategoria profesionalari dagokionez**

latiborik handiena (%59). Dokumentu elektronikoak dira, funts bibliografikoekin batera, hazkunde erlatiborik baxuena izan dutenak: %12,8 eta %14,7 hurrenez hurren.

## 1.2. Erabiltzaileak eta mailegu zerbitzuak

2004. urtean zehar 4.627.134 bisitari zenbatu dira guztira elkarrizketaturiko 259 liburutegietan, urte bete lehenago lorturiko bisitari kopuruaren antzekoa.

2004. urtearen bukaeran izena emandako erabiltzaileak guztira 58.411 dira. Hauetatik 26.790 (%46a) erabiltzaile helduak dira eta 15.064 (%26a) haurrak. Sexuaren arabera sailkatutako 10 erabiltzailetatik sei emakumezkoak dira.

Udal-liburutegietan 2004. urtean zehar maileguan egondako lanak guztira 2.342.438 dira. Kopuru honetatik, %65,3a (guztira 1.530.349) liburuen maileguari dagokio, %15a ikus-entzunezko dokumentuei eta %14,7a soinu grabazioei.

Elkarrizketaturiko 259 liburutegietatik 112k liburutegi-arteak maileguak egiten dituzte; hau da, aztertutako liburutegien %43, guztira 2.986 mailegu kontabilizatzen direlarik. Liburutegi-arteak mailegua, oinarrian, Euskal Autonomia Erkidegoko liburutegien artean egiten da, jaso edota emandako dokumentuen %6a soilik egin da Espainiako edota nazioarteko liburutegien artean.

2004. urtean gelan zerbitzua eskaintzen duten liburutegiak 54 direla egiaztatu da. Urte horretan, guztira 192.568 kontsulta egin dira gelan, eta hauetatik %2a bakarrik ez du konpondu liburutegien zerbitzuak.

2004. urtean guztira aurrera eraman diren jarduerak kulturalak 4.974 izan dira, eta honela banatu dira; 1.014 ipuinen orduak, 724 irakurketaren animazioa, 498 erakusketak eta 65 literatur sariak. Guztira 1.877 aktibitate eraman dira aurrera berrikuntza-gida, irakurketa-gida, eta abarren edizioarekin loturik.

## 1.3. Liburutegietako ekipamendua: Automatizazioa

Liburutegi bakoitzeko batez beste 5,5 ordenagailu daudela egiaztatu da (1.427 ordenagailu guztira), 1,74 inprimagailu, 0,95 fotokopiagailu eta 0,44 eskaner liburutegi bakoitzeko.

Ekipamendu informatikoari dagokionez adierazgarria da hiru ordenagailutatik bi erabiltzaileentzat bakarrik direla, gainerakoak liburutegiko pertsonalak barne izaerarekin edo izaera pribatuarekin erabiltzeko daudelarik. Erabilera publikorako dauden ordenagailuen %80 Interneti konektaturik daude, barne izaera edo izaera pribatua duten ordenagailuen artean, ostera, Interneti konektaturikoek %92a osatzen dute.

**Udal-liburutegietan 2004. urtean zehar maileguan egondako lanak guztira 2.342.438 dira. Kopuru honetatik, %65,3a (guztira 1.530.349) liburuen maileguari dagokio, %15a ikus-entzunezko dokumentuei eta %14,7a soinu grabazioei**

Elkarrizketaturiko liburutegien erdiak OPACa dute, eta 2004. urtean 555.085 kontsulta egin dira sistema honen bidez.

Kontsultaturiko gainerako ekipamenduak, liburutegi kopuru oso murritzean aurkitzen dira, ondorengo koadroan ikus daitekeen bezala:

	Bestelako ekipamenduak dituzten liburutegiak	Liburutegien % guztizkoaren gainean
<b>Irudi-irakurgailuak</b>	44	17,0
<b>Soinu-irakurgailuak</b>	50	19,3
<b>Mikroformen irakurgailuak</b>	22	8,5
<b>Telebistak</b>	53	20,5
<b>Ondare digitala</b>	25	9,7
<b>Web orrialdea</b>	43	16,6
<b>Webean OPACa</b>	75	29,0
<b>Z39.50 Serbidorea</b>	74	28,6

#### 1.4. Gastuak eta finantzaketa

Elkarrizketaturiko 259 liburutegiek 23.018.375 eurotako gastua izan dute; hau da, liburutegi bakoitzeko batez beste 88.874,03 euro. Gastuen %82a gastu arruntei dagokie (18.870.684), gainerako %18a inbertsioetarako gastuek osatzen dutelarik (4.147.691).

Gastu arrunten barnean, liburutegietan lan egiten duen pertsonalari dagokiona, 2004. urtean, 12.842.133 eurotara igotzen da eta gastu arrunt guztiaren %68,1 osatzen du. Erosketa bibliografikoetan 2.334.033 euro gastatu dira (%12,4), gainerako gastuak liburutegiek antolaturiko jarduera kulturei eta bildumaren mantentze gastuei dagozkielarik.

Azkenik, inbertsioetara zuzenduriko gastuen hiru laurdenak eraikuntzen erosketa edota zabalkuntzara bideratu dira, gainerakoa liburutegietako altzariak eta ekipamendua erosteko izan delarik.

**Erabilera publikorako dauden ordenagailuen %80 Interneti konektaturik daude, barne izaera edo izaera pribatua duten ordenagailuen artean, ostera, Interneti konektaturikoek %92a osatzen dute**

EAEko udal-liburutegiek 24.238.847 euro izan dituzte euren finantzaketarako; batez beste 93.586,28 euro liburutegi bakoitzarentzat (%5eko finantza soberakina). Espero zen bezala eta liburutegi hauek eskaintzen duten zerbitzua kontutan harturik, finantzaketa horren jatorria, oinarrian, udaletxeak dira (%96,1), eta %3,4a liburutegiek eskaintzen duten zerbitzuetatik edo autofinantzaketatik dator.

### 1.5. Pertsonala

Udal-liburutegietan guztira 582 langile daude azterturiko urtean jarraian adierazten den moduan banatzen delarik:

Liburutegiko pertsonala .....	70
Liburutegiko laguntzaileak .....	321
Enpresa pribatuetako pertsonala .....	60
Bekadunak eta bolondresak .....	21
Pertsonal espezializatua .....	16
Bestelako pertsonala .....	94

Liburutegietan lanaldi osoan lan egiten duten langileak 342 dira (%58,8), gainerako pertsonalak lanaldi partziala duelarik. 2004. urtean udal-liburutegietan lan egin duen pertsonalaren kopurua, lanaldi osoan 447 langile izatearen baliokidea izango litzateke (1,72 langile liburutegiko).

Liburutegietako pertsonalaren ezaugarri nagusia 36 eta 45 urte bitarteko emakume funtzionarioa izatea da.

## 2. EMAITZEN ANALISIA, ALDERDI KUALITATIBOA: LIBURUTEGIETARA BISITAK

Guztira 107 liburutegi bisitatu dira ondorengo banaketaren arabera: liburutegien %50a baino gehiago Bizkaian kokatua dago, %32,7a Gipuzkoan eta %16,8a Araban.

Bisitak 2.005eko martxoaren 16a eta apirilaren 15a bitartean egin ziren.

### 2.1. Emaidza nagusiak

#### Liburutegia eta ingurunea

- **Helbidea:** helbideari buruzko datuak zehaztasunez egiaztatu dira, eta datuok zehatzak ez ziren kasuetan zuzendu egin dira. Liburutegien %96a Eusko Jaurlaritzak adierazitako helbideetan kokatua dago, eta %4a bakarrik

**EAEko udal-liburutegiek  
24.238.847 euro izan dituzte  
euren finantzaketarako; batez  
beste 93.586,28 euro liburutegi  
bakoitzarentzat**

kokatzen da beste helbide batzuetan, duela gutxi egoitza aldatu dutelako edota ohiko eraikuntzetan egokitzapen lanak burutzen ari direlako beste egoitza batera mugitu behar izan dutelako.

- **Irisgarritasuna:** legezko ikuspuntu batetatik, entitate publikoentzat nahitaezkoa da euren instalazioetara edozein pertsona sartu ahal izateko baliabideak izatea, oztopo fisikoak kenduz eta sarbideak malda, igogailu, eta abarrez moldatuz, horrexegatik hartu da kontuan adierazle hau, ingurunearen azterketarako aldagai interesgarria delako. Kasu gehienetan, liburutegiek ezinduentzat, pertsona helduentzat... moldaturiko sarbideak dituzte edo beheko solairu edota igogailu bidezko sarbidea duten solairuetan kokatzen dira (%69). Liburutegien %31a goiko solairuetan kokatuta daude eta pertsona talde horientzako beharrezkoak diren baliabideak falta dituzte, nahiz eta liburutegi hauetako batzuek egokitzapen lanak proiektatuta dituzten, edo legeak eskatzen dituen ezaugarriak dituzten eraikuntzetara mugitzeko asmoa duten.

- **Eraikuntza:** irisgarritasunarekin jarraituz, garrantzitsua da liburutegia erdigunean kokaturik dagoen edota aldiz hirigunetik urrun kokaturik dagoen adieraztea, horrek liburutegiaren asistentzian eragin baitezake, batez ere biztanleria oso sakabanaturik duten udalerrietan. Hala ere, egiaztatu ahal izan da liburutegien %91a erdigunetik gertu dagoela, udalerrietako plaza nagusien inguruan edota udaletxe nahiz osasun zentro, ikastola, eta abarren ondoan, eta beste kasu batzuetan tren, autobus edo metro geltokien inguruan. Gainera, biztanleria kopuru eta azalera handia duten udalerrri batzuetan sukurtsal bat baino gehiago dago herritar guztien premiei aurre egiteko.

### Ezaugarriak eta ekipamendua

- **Ingurunearen baldintzak:** lekuaren banaketari dagokionez, ikus daiteke bisitaturiko liburutegien erdiak baino gehiagok (%52) zonalde desberdinak dituztela pertsona heldu, haur eta baita informatika, ludoteka, hemeroteka, ikasketak, eta abarrentzako. Kontutan hartu behar da %79ak kalifikazio ezin hobea duela seinaleztapena eta instalakuntzen erosotasunari dagokionez, zeren kasu gehienetan, liburutegi berriak edota berritu berriak dira, eta hauek azpiegitura modernoz hornituak izan dira. Bestalde, %39ak gela bakarra du, normalean udalerrri txikiakoko liburutegietan kokatuak, baina hauetatik %64ak balorazio positiboa izan du seinaleztapen eta erosotasunean. Azkenik, liburutegien portzentaia txiki baten kasuan (%7), nahiz eta gela bakar batez osatuak egon, berau haur eta helduentzako eremu ezberdinetan banatzen da, eta hauetatik %88k seinaleztapen eta instalakuntza egokiak ditu.

- **Sarbide libreko liburuak:** liburutegien %87an erabiltzaileak liburuzainaren bitarteko lanik gabe kontsultak egin ditzake liburukietan. Hauetara heltzeko baliabide materialak (eskailerak, aulkiak, etab.) behar dira, batik

**Kasu gehienetan, liburutegiek ezinduentzat, pertsona helduentzat... moldaturiko sarbideak dituzte edo beheko solairu edota igogailu bidezko sarbidea duten solairuetan kokatzen dira (%69)**

bat hauek biltegitatzeko nahiko lekurik ez dagoelako, libururik zaharrenak edota erabilera urriena dutenak goiko apaletan kokatzen direlarik; hala ere, hau zentroen %10ean soilik gertatzen da.

- **Ekipamendu informatikoa:** Bisiten operatibaren emaitzek erakusten dute EAEko udal-liburutegiek eguneroko funtzionamendurako teknologia berriak integratu dituztela, gehiengoak egunero ordenagailuekin lan egiten baitu eta kasu askotan erabiltzaileen esku jartzen baitituzte. Interneti buruz esan, bisitaturiko liburutegien %84ak sareari konexioa dutela, konexio hori ez dutenen %15aren aurrean, nahiz eta kasu batzuetan beronen instalakuntza aurreikusirik egon.

### Erabiltzaileak: Ezaugarriak eta elkarrekintza

- **Ohikoenak diren erabiltzaile motak:** azken urteotako eboluzioak garbi uzten du aldaketa bat ematen ari dela liburutegiak betetzen dituen funtzioetan, dokumentaziorako soilik den zentro batetik, kolektibo ezberdinen arteko bilgune, zentro ludiko eta informazioa trukatzeko zentro, etab. izatera pasa delarik. Berrikuntza dinamika honetan, ezinbestekoa da erabiltzailearen tipologia ezagutzea (heldua, gaztea, haurra edo ikaslea) eta eskatzen duena jakitea, honela liburutegiak xede horietarako elkarrekintza eta egokitzapenerako beharrezkoak diren mekanismoak ezarri ditzan. Bisiten operatibaren ostean, egiaztatu ahal izan da, liburutegira doan erabiltzaile ohikoenaren tipologiari buruz galdetu denean, liburuzainen erantzuna anitza izan dela. Ez dago besteengandik bereizten den talderik, helduak liburutegien %60an agertzen dira, haurrak %63tan, gazteak %50etan eta azkenik ikasleak liburutegien %44an.

- **Liburutegiko zerbitzuen erabilpen mota ohikoenak:** zerbitzu hauei buruzko ezagutza zabalago batek, liburutegiek erabiltzaileei eskainitako prestazioen hobekuntzan laguntzen du. Bisiten ostean lorturiko datuek adierazten dute mailegua zentroen %90ean ematen dela, urrundik jarraitzen diote gainerako zerbitzuek: ikasketak eta irakurketak %42 eta %41ekin hurrenez hurren, Internetak %23rekin, eta azkenik, haurrei zuzenduriko beste erabilera batzuek (ludoteka, "etxeko lanak " edo eskolako lanak egitea, etab.) %17arekin.

- **Gelan kontsultak:** gehiengoak (%79) datu hau erregistratzeko sistemarik ez du, nahiz eta multzo txiki batek (%21) datu hau kontutan hartu eta kontabilizatzen duen. Kasu gehienetan (%78) zenbaketa eskuz egiten da erabiltzaileak liburuak bueltatzen dituenean, liburuak apaletatik hartzen diren bakoitzean idatziz. Kasu batzuetan sistema elektronikoak ere erabiltzen dira horretarako (%19).

- **Liburutegia eta erabiltzailearen arteko elkarrekintzaren adierazleak:** bi agenteak zein modutan erlazionatzen diren erakusten duten hiru aldagai kontrolatu dira:

**Azken urteotako eboluzioak garbi uzten du aldaketa bat ematen ari dela liburutegiak betetzen dituen funtzioetan, dokumentaziorako soilik den zentro batetik, kolektibo ezberdinen arteko bilgune, zentro ludiko eta informazioa trukatzeko zentro, etab. izatera pasa delarik**

- ◆ **Ikastaroen antolakuntza:** liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuetan (OPACeko kontsultak, Interneten informazioa bilatzea, etab.) erabiltzailea prestatzera zuzendua. Liburutegien gehiengoak (%79) ez du inolako ikastarorik antolatzen, asistentzia ez baita oso ugaria izaten, aitzitik indibidualki azaltzen da liburutegiaren funtzionamendua eta bertan eskaintzen den zerbitzua; %21ak soilik burutzen ditu urte osoko prestakuntza ekintzak, gehienetan eskolako taldeei zuzenduak.
- ◆ **Erabiltzaileek funts berrien erosketa eskatzeko aukera:** kasuen %88an, erabiltzaileak erosketa eskariak egin ditzake, beti ere interes orokorreko materiala denean. Hala ere, zentroen %12ak ezin die bere publikoaren eskariei aurre egin, orokorrean, baliabide ekonomikoek mugatzen dutelako.
- ◆ **Iradokizunetarako postontzia: liburutegia eta erabiltzailearen arteko komunikazioa errazteko;** liburutegien %55ak ez du iradokizunetarako postontzirik, horrek ordea ez du galarazten erabiltzaileek euren proposamenak liburutegira helaraztea, liburuzainarengana zuzenean joanda. Iradokizunen gehiengoak ordutegien zabaltzarekin, liburu zehatz batzuen erosketarekin, instalakuntzen hobekuntzarekin, etab. dago erlazionaturik.

### **Indarrak, ahuleziak, eta hobekuntzarako proposamenak**

Bisiten operatibaren zeharkako helburuetako bat liburutegietako pertsonalak bere jarduera garatzen dueneko eguneroko errealitatera hurbiltzea eta berau gehien kezkatzen duten gaiak gertutik ezagutzea izan da, zeinak ondorengo puntu klabeetan laburbildu daitezkeen:

- **Azalera:** liburutegiek azalera faltari aurre egin behar diote, bai liburuen erakusketarako eta baita erabilerarik gabeko liburukien kokapenerako ere. Liburutegien berezko izaerak, jadanik bertan dauden lanak, urte horretan editatzen direnak eta jadanik horrenbesteko erabilera ez dutenak erakutsi ahal izateko, eremu zabalak eskatzen ditu. Hala ere, zentro gehienak horretarako prestatuta ez dauden eraikuntzetan daude kokatuta eta hauek zaharkiturik eta txiki geratu dira biztanleria asko hazi den udalerrietan; horregatik egokitzapen lanak egitea edota beste establezimendu egokiago batzuetara lekualdaketa egitea beharrezkoa egiten da kasu batzuetan. Zentzu honetan, udalteei, azpiegiturak hobetzeko joera erakutsi dute, bisitaturiko liburutegi asko eraikuntza berrietara lekualdatzeko prest baitaude, nahiz eta udaletxe bakoitzaren inplikazio maila udalerritik batetik bestera asko aldatu.

- **Pertsonal falta:** liburutegien ikuspuntutik, lantaldeak handitzeko beharra ondorengo arrazoietan ikus daiteke:

**Liburutegien berezko izaerak, jadanik bertan dauden lanak, urte horretan editatzen direnak eta jadanik horrenbesteko erabilera ez dutenak erakutsi ahal izateko, eremu zabalak eskatzen ditu**



- ◆ Kasu gehienetan arduradun bakarra dago liburutegian, baina aurrera eraman behar dituen lan guztiak kontutan harturik (publikoari arreta, erosketak, irakurketa garatzeko animazioak, apaletako bildumen antolamendua, garbiketa, katalogazioa, etab.) beste pertsona baten esku-hartzea beharrezkoa da.
- ◆ Liburutegi batzuk itxi egin behar izaten dira arduradunak bajan daudenean, inolako ordezkatzeko sistemarik ez dutelako.
- ◆ Erabiltzaileen ordutegia zabaltzeko eskakizunek, eskakizun hauei aurre egiteko beharrezko giza baliabideak kontratatzea eskatzen dute.
- ◆ Kontutan hartzekoak dira udaletxe batzuk egoera honi aurre egiteko egiten ari diren esfortzuak, Enpleguko Institutu Nazionalarekin 6 hilabeteko epealdietarako pertsonala ezartzeko akordioak ezarriz.
- ◆ Kasu batzuetan liburuzainen haserrea aipatu izan da kategoria eta kontratuen gaiari dagokionez, batzuetan euren kategoriarekin bat ez datozen lanak egitera behartuta baitaude eta hartzen duten ardura ez da euren soldatetan islatzen. Hala ere, garatzen ari den liburutegiei buruzko normatiba berriaren aurrean itxaropen handiak sortu dira, non beraien aldarrikapenak kontutan hartu daitezkeen.
- ◆ Liburutegiaren izaera: badira liburutegiaren esentzia hutsaltzen duten bi kolektibo: alde batetik, ikasleak zentroetara joaten dira ikasketa gela bat izango bailitzan eta honek eskaintzen dituen zerbitzuak ez dituzte kontutan hartzen. Bestalde, zentro batzuk haurren publikoak monopolizatu ditu, euren gurasoek aisialdirako leku bezala hartzen baitituzte (etxeko lanak egin edota jolasteko)

**Badira liburutegiaren esentzia hutsaltzen duten bi kolektibo: alde batetik, ikasleak zentroetara joaten dira ikasketa gela bat izango bailitzan eta honek eskaintzen dituen zerbitzuak ez dituzte kontutan hartzen. Bestalde, zentro batzuk haurren publikoak monopolizatu ditu, euren gurasoek aisialdirako leku bezala hartzen baitituzte (etxeko lanak egin edota jolasteko)**

- **Liburutegietako pertsonalaren gaitasunen garapena:** EAEko udal-liburutegiak sare telematiko bakar batean biltzeko Absysnet sistema martxan jarri zenetik, sistema horretan sartzeko beharrezkoa den aurre-katalogazioa eta programa informatikoaren bidezko liburutegiaren kudeaketa aurrera eramateko, prestakuntza beharrak aurkitu dira. Horregatik, interesgarria izango litzateke Eusko Jaurlaritzak, Absysneten garapenaren aldekoa denak, katalogatzen ikasteko kursoak eskaintzea edota katalogatzen ez dakiten liburutegietan horretarako profesional ekipo bat sortzea. Bestalde, Absysneten laguntza zerbitzua garatu ahal izango luke kudeaketatik eratorritako arazoak konpontzeko. Azkenik, liburutegia erakunde publiko bat izatearen etengabeko garapenak, etengabeko eguneraketa eskatzen du, horretarako bertako langileek behar dituzten gaietan prestakuntza jasotzea beharrezkoa delarik: kultura artekoa, zentroetara kolektibo inmigrantearen hurbilketa dela eta, informatika, eguneroko funtzionamenduan teknologia berrien integrazioa posible izateko, etab.

- **Liburutegien arteko harremanak:** positiboa izango litzateke liburutegien artean esperientziak elkarbanatzea, liburutegi bakoitzaren errealitateak ezagutzeko edo ideiak aldatzeko komunikaziorako sistema bat osatzea, honek liburutegi batzuen isolamendua hausten eta eredu komun bat garatzen lagunduko luke.

- **Erabiltzailearen aldetiko motibazio eza:** liburutegi batzuek ikusi ahal izan dute eskaintzen dituzten zerbitzu batzuk oso interes gutxi pizten dutela erabiltzaileen artean eta beharrezko ikusten dute udaletxeen eta Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa, batez ere arlo ekonomikoan.

- **Udaletxea:** liburutegiak euren udalerrietako udaletxeen esku daude eta udaletxeen inplikazioak zuzenean eragiten du euren funtzionamenduan. Zentzu honetan, zenbait udaletxe kultura eta beronen sustapenarekin oso konprometiturik daudela ikusi ahal izan da, beste batzuek aldiz, beste lehentasun batzuk hartzen dituzte kontutan; hau udaletxearen beharrezanetan oinarritzen da, udalerrri bakoitzak bere ezaugarri eta problematikak baititu, eta neurri horretan betebeharre aurre egiteko gai izango dira edo ez: betebeharrak kulturalak, lan mundukoak, ingurugirokoak, etab. Aipatu dena kontutan hartuz, liburuzainek udaletxeen aurrean dituzten eskaerak ondorengo puntuetan zentratzen dira:

- ◆ Liburutegiaren zerbitzuen sustapenean inplikazio handiagoa
- ◆ Bertako arduradunek egindako lanari errekonozimendua
- ◆ Inbertsio handiagoa baliabide ekonomiko eta materialetan

- **Eusko Jaurlaritza:** organo honen aurrean liburutegiek dituzten eskaerak ondorengo ataletan oinarritzen dira:

**Positiboa izango litzateke liburutegien artean esperientziak elkarbanatzea, liburutegi bakoitzaren errealitateak ezagutzeko edo ideiak aldatzeko komunikaziorako sistema bat osatzea, honek liburutegi batzuen isolamendua hausten eta eredu komun bat garatzen lagunduko luke**

- ◆ Komunikazioaren hobekuntza: liburutegi batzuek antzematen duten isolamendu egoera ekiditeko informazio eta komunikazio bide batzuk ezarri beharko lirateke.
- ◆ Dirulaguntzen politika: egun, diru kopuruaren banaketa biztanleria kopuruaren arabera egiten da; baina hala ere, badira liburutegiak, euren izaeragatik, laguntzak banatzeko moduarekin ados ez daudenak, beraien ustetan beste aspektu batzuk ere hartu beharko bailirateke kontutan; hala nola, udalerrian dagoen sukurtsal kopurua, bakoitzean liburu kantitate berdina izatea beharrezkoa baita.
- ◆ Euskarri generikoa: liburutegien ustetan, Eusko Jaurlaritzak urtero bidaltzen duen liburu loteetan nobedade guztiak sartzen dira, baina liburu tematiko eta material berezietan (CDak, DVDak, etab.) gabezia bat dute, batez ere euskaraz, eta liburutegia materiala erostera behartzen dute. Gomendagarria izango litzateke bidaltzeko diren aleen zerrenda egiterako orduan irizpide batzuk kontutan hartzea, adibidez: biztanle kopurua, udalerrian dagoen sukurtsal kopurua (honela, sukurtsal bakoitzak lote bat eskuratu ahal izateko), erabiltzailearen tipologia, etab. Liburutegiek Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dituzten liburuki askok ez baitute erabiltzailearen profilarekin bat egiten eta deposituan pilaturik edo apaletan leku esanguratsua okupatuz bukatzen dute.

**Eusko Jaurlaritzak urtero bidaltzen duen liburu loteetan nobedade guztiak sartzen dira, baina liburu tematiko eta material berezietan (CDak, DVDak, etab.) gabezia bat dute, batez ere euskaraz, eta liburutegia materiala erostera behartzen dute**



[kulturabehatokia@ej-gv.es](mailto:kulturabehatokia@ej-gv.es)